



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko ekainaren 27a

81. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da % 0,7aren funts-banaketa alda dezan eta Espainiako gainontzeko tokiekin berdindu dezan, Eliza Katolikoaren eta gizarte-intereseko beste xede batzuen laukitxoak markatzen diren kasuetan. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du 1936ko estatu-kolpearen osteko errepre-sioan desagertutakoen senitarteko orok daukala bere senitartekoari buruzko informazio guztia ezagutzeko eskubidea. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San José zentroko aste bitarteko zaintzaileei aplika diezaien urteko 1.457 orduko lanaldia. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Europako Parlamentua premiatzen da otsailaren 1a Emakumeen sexu- eta ugalketa- eskubideen Europako Egundeklaratzen dezan. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen baitu Kairoko programa berrets dezan Nazio Batuen biltzar nagusiaren hurrengo bilkura berezian. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gurutze Gorria eta haren Nafarroako ordezkariak zehazten baititu haien 150. urtemuga dela eta. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Armeniako herriaren aurkako genozidioaren urteurrena hartzen baitu gomutan, eta garai hartan zegoen Turkiako erregimenak zerabilen politika salatzen baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Felipe VI.a Erregea zehazten baitu, Espainiako Errege aldarrikatua izan ondoren. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesten baitu 2014an ospatzea lesbianen, gayen, transexualen eta bisexualen (LGTB) giza eskubideen aitopenerako urtea. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako sinbolo nazionalekiko bere konpromisoa berresten baitu. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezko aldaketak egin ditzan indarrean dagoen Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratua eta exiji diezaien Sakanako Mankomunitateari eta bertan integratuta dauden eta atez ateko sistema inposatu nahi duten udalei sistema horren ezarpena geldiarazteko. Mozioa erretiratzea (11. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, kronikoen estrategiarako bi milioi euro zer kontzeptutan gastatuko diren jakitekoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak arku atlantikoko trenbide-korridorea bultzatzeko proiektuan parte hartzeari buruzkoa, Eloy Villanueva Cruz jaunak egina (12. or.).
- Galdera, ikastetxe publikoetan egiten diren larrialdietako ebakuazio-simulakroei buruzkoa, Patxi Leuza García jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean “Aquiles” hidrokarburoen gaineko ikerketa-proiektuaren sismologia-azterlana hasteari buruzkoa, Víctor Rubio Martínez jaunak egina (14. or.).

I SAILA:

Planak, komunikazioak eta programak:

- Nafarroako 2014-2020 Osasun Plana. Erabaki proposamenak aurkezteko epea (15. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da % 0,7aren funts-banaketa alda dezan eta Espainiako gainontzeko tokiekin berdindu dezan, Eliza Katolikoaren eta gizarte-intereseko beste xede batzuen laukitxoak markatzen diren kasuetan.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita % 0,7aren funts-banaketa alda dezan eta Espainiako gainontzeko tokiekin berdindu dezan, Eliza Katolikoaren eta gizarte-intereseko beste xede batzuen laukitxoak markatzen diren kasuetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da % 0,7aren funts-banaketa alda dezan eta Espainiako gainontzeko tokiekin berdindu dezan, Eliza Katolikoaren eta gizarte-intereseko beste xede batzuen laukitxoak markatzen diren kasuetan.

Bai Espainian, bai Espainiako gainontzeko tokietan, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunen esku dago beren aitortpenen kuota osoaren % 0,7 bideratzea Eliza katolikoaren sostengu ekonomikoan laguntzera eta/edo

gizarte intereseko beste xede batzuetara, bai eta inolako hauturik ez egitea ere.

Baldin eta zergadunak laukitxoetako bat bakarrik markatzen badu, aukera horretara bideratuko da PFEZaren kuota osoaren % 0,7, eta ez baldin bada inolako hauturik egiten, Estatuko aurrekontu orokorreari egotziko zaie, xede orokorretarako, edo Nafarroako aurrekontu orokorreari, Foru Komunitatearen kasuan. Nafarroako zergadunen eta Espainiako gainontzeko zergadunen arteko aldea gertatzen da bi aukerak markatzen badira; hau da, bai Eliza Katolikoa bai gizarte-intereseko beste xede batzuk finantzatzea hautatzen bada.

Espainiako edozein erkidegotan bi laukitxoak markatuz gero, zergadunak % 0,7 bideratzen du aukeretako bakoitzerako; hau da, kuota osoaren % 1,4. Nafarroan, ordea, bi aukerak hautatzean, herritarrak % 0,35 bideratzen du horietako bakoitzerako; hau da, hautatutako bi xedeen artean banatzen da % 0,7 hori. Halatan, Nafarroako entitateek eta GKE-ek garatzen dituzten gizarte-programek, bai eta Eliza Katolikoak egiten duen lanak ere, % 0,7aren banaketa egitean gainontzeko autonomia erkidegoetan duten egoera baino egoera okerragoa dute hasteko eta behin. Nafarroako egoera eta Espainiako gainontzeko lekuetako egoera berdintzea eskatu dute azken urteotan zenbait taldek, entitatek eta GKEk.

Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenen % 0,7aren funts-banaketa alda dezan, % 0,7 osorik bidera dakion bi aukeretako bakoitzari, Eliza Katolikoaren eta gizarte-intereseko beste xede batzuen laukitxoak markatzen diren kasuetan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du 1936ko estatu-kolpearen osteko errepresioan desagertutakoen senitarteko orok daukala bere senitartekoari buruzko informazio guztia ezagutzeko eskubidea.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu 1936ko estatu-kolpearen osteko errepresioan desagertutakoen senitarteko orok daukala bere senitartekoari buruzko informazio guztia ezagutzeko eskubidea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa eta Nafarroa Bai parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Legegintzaldi honetan zehar ezin konta ahala ekimen aurkeztu eta eztabaidatu dira Legebiltzar honetan, 1936ko kolpe militarren osteko errepresioaren biktime izandako eta eraildako herritar nafarren memoria aintzatestera eta oneratzera bideratuak.

Nabarmenezkoa da, izan duen garrantziarengatik, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean osatutako lan-taldea, Nafarroan 1936ko biktimei ematen zaien arretaren egungo egoera aztertzeaz, eta biktime horiei laguntza, ordaina, oroimena eta justizia emateko neurriak bideratzeaz arduratu zena.

Prozesu horren emaitza gisa, Osoko Bilkurak azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea onetsi zuen, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktime izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala emate-

koa. Egun historikoa gertatu zen, inondik ere, egun horretan gurekin egon ziren ehunka senitartekoentzat ez ezik, Nafarroako herritarren sektore handi batentzat ere, poztasunez ikusi zuena Nafarroako erakundeek pertsona horiekin eta beren senitartekoekin zeukaten zor morala azkenik ordaindu zutela.

Parlamentuko bilakabide horretan guztian, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordeko kideok historialarien nahiz senitartekoen kexa ugari egiaztatu ahal izan ditugu; izan ere, arazoak izan dituzte zenbait erakunderekin artxiboak kontsultatzeko, urte haietan gertatutakoa edo beren hurbilekoak non dauden argitzen saiatu direnean.

Oraindik ere pertsona ugari daude desagerturik Nafarroan, leku ezezagunean. Pertsona horien senitartekoak, kasu askotan, haien gorpuzkiak berreskuratzen saiatzen dira, edo, behinik behin, zer gertatu zitzaizen jakiten. Pertsona horiei buruzko informazio asko errepresio-lanetan parte-hartze zuzena izan zuten erakundeen artxiboetan dago, erakunde horien ezaugarri bat baita beren jarduketan xehetasunak jasota edukitzea.

Ulertezina da, informazioa egonda, jendaurrekoa ez izatea eta hurkoek eskuratu ahal ez izatea, ia 78urte igaro ondoren beren senitartekoak aurkitu ahal izateko. Onartezina da ikuspegi demokratiko batetik, eta pentsaezina, noski, egungo Europan.

Gizon eta emakume haien memoria eta ohera, bai eta haien senitartekoena ere, gaur egungo beste edozein gorabeheraren gainetik jarri behar da, eta guztioi dagokigu, erakunde politiko, militar eta elizakoak barne, egiaren ezagutza erraztu eta bultzatzea.

Senitartekoei nahiz historialariei zenbait artxibotan egon litezkeen informazio-iturriak baliatu ahal izatea errazte aldera –logika demokratiko ororen aurka, oraindik ere iritzi publikoari itxi eta harengandik ezkutatuta daude–, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeen honako mozio hau aurkeztzen dugu, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du 1936ko estatu-kolpearen osteko errepresioan desagertutako senitarteko orok daukala bere senitartekoari buruzko informazio guztia ezagutzeko eskubidea, zer gertatu zen eta ahaidea non dagoen argitzen lagundu baitezake.

2. Parlamentu honek dei egiten die erakunde publiko nahiz pribatu guztiei beren artxiboetan eduki dezaketen informazio guztia eman dezaten, eta ez diezaieten inolako eragozpenik jar garai hartan gertatutakoaren eta errepresaliatuak lurperatuta duden tokiaren gaineko interesa ager dezaketen erakundeek edo beren kasa diharduten pertsonak egindako errekerimenduei.

3. Parlamentu honek Nafarroako Gobernu, Gobernu Zentralaren Ordezkaritza eta Barne nahiz Defentsa ministerioak premiatzen ditu kasuko elkarrizketak abiaraz ditzaten, zeinen ondorioz

Probintziako Presondegiko eta Ezkabako Gotorlekuko Presondegiko artxiboak igaro daitezzen Nafarroako Errege Artxibo Nagusira, eta Nafarroako Dokumentu Ondarearen parte izatera.

4. Parlamentu honek Gobernu Zentrala premiatzen du 1936-1968 aldiari buruz dauden 10.000tik gora agiri desklasifika ditzan, Nafarroari buruzko informazioa eduki dezaketelakoan.

5. Parlamentu honek Guardia Zibilarren Zuzendaritza Nagusiarik eskatzen dio bere artxiboetarako sarbidea protokoliza dezan –Barne Ministerioaren Artxibo Sistemaren mende daude–, errepresio frankistari buruzko orotan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 18an

Foru parlamentariak: Víctor Rubio Martínez eta Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da San José zentroko aste bitarteko zaintzaileei aplikatutako diezaien urteko 1.457 orduko lanaldia.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita San José zentroko aste bitarteko zaintzaileei aplikatutako diezaien urteko 1.457 orduko lanaldia.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoa hamabietan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Gizarte

Politiketako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

San José zentroko aste bitarteko zaintzaileek plantilla bakar bat osatzen dute, lanaldia goizeko, arratsaldeko eta gaueko txandetan egiten duena 1982az geroztik. Zentroko zuzendaritzak hala eskatuta, Administrazioak berariazko errotazio-sistema ezarri zuen 1982an. Egon diren zuzendaritza guztiek sistema hori errespetatu dute, eta ez da egon inolako arazorik ez gatazkarik, ez endogenorik, ez exogenorik.

Aipagarria da zaintzaileek, urte horretatik aitzina, goizeko, arratsaldeko eta gaueko txandetan lan egin beharra onartzen dutela. Zaintzaileen txandak ezartzearen gaineko eskumen eta erabaki hori zuzendaritzari dagokio. Behean sinatzen dugun parlamentu-taldeon ustez, hamarkadetan zehar onartutako berariazko lanaldiaren bidez lehentasuna eman nahi zaie, eta ematea lortzen da, zerbitzuaren beharrezkotasunari, egoiliarrei behar duten arreta egonkorra eta jarraitua emate aldera eta zerbitzuaren kalitatean estandar egoki bat eskaintze aldera.

Mozio honen eta mozioaren erabaki proposamenaren arrazoia eta justifikazioa da de facto

aitortutako lanaldiaren urteko ordu-kopuruaren baldintzak 2013ko abenduaren 31ra bitarte mantentzea eta interpretazio arbitrarioak gaitzestea; esate baterako, kasuko departamentuak 2014ko urtarrilaren 1etik aitzina aplikatu nahi izan duena, zeinaren arabera bazter utzi nahi baitira araudi orokorraren aplikazioan salbuespen bat sartzen duten akordioak.

Aipagarriak dira, besteak beste, 1990eko irailaren 21eko NAO-n jasotako akordioa, 1990eko irailaren 4ko Foru Agindua argitaratzekoa. Horren II. eranskinean jasotzen da Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren zerbitzuko langileen enplegu-baldintzen gaineko akordioa, 1990eko apirilaren 6an sinatua. Akordio hori hitzarmena argitaratu izan duten aldizkarietan ere ageri da: 1996ko irailaren 4koan, 2000ko azaroaren 27koan, 2003ko otsailaren 24koan, 2004ko urriaren 29koan eta 2007ko urtarrilaren 24koan.

Hona akordio horrek zer dioen: "San José zentroko langileek, zaintzaile lanpostua betetzen dutelarik, goizeko, arratsaldeko eta gaueko errotazio-txandak egiten badituzte –hutsala da txanda-aldaketa egiteko periodikotasuna–, goizeko, arratsaldeko eta gaueko txandetarako ezarritako ordu- nahiz diru-konpentsazioa jasotzeko eskubidea izanen dute".

Behean sinatzen dugun parlamentu-taldeon ustez, garrantzitsua da San José zentroko aipatu lanaldia babestu dutela Mahai Sektorialeko eta Orokorreko sindikatu guztiek, Parlamentuaren gehiengoak –Gizarte Politiketako Batzordeak 2014ko maiatzaren 20an egindako lan bileran esplizituki egindako balorazioetan– eta zentro horretan egindako lan-motaren tipologiak ere. Ateratako ondorioa da ezin dela beste langile publiko batzuekiko inolako konparaziozko bidegabekeria-rik ezarri.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du urteko 1.457 orduko lanaldia ezar diezaien San José zentroko aste bitarteko zaintzaileei, zeinen lanaldia goizeko, arratsaldeko eta gaueko txandetan egiten baita. Eskaera hori justifikatzen dute langile horiek artatzen duten kolektiboaren espezifikotasunak eta txanda-aldaketarako periodikotasunak, zeina ez baita urte beraren barruan egiten.

Iruñean, 2014ko ekainaren 19an

Foru parlamentariak: Bikendi Barea Aiestaran eta Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Mozioa. Horren bidez, Europako Parlamentua premiatzen da otsailaren 1a Emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideen Europako Egundeklaradezan.

SOCIALISTAS DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Europako Parlamentua premiatzen baita otsailaren 1a Emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideen Europako Egundeklaradezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko ele-dun Roberto Jiménez Alli jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

2013ko abenduan, Alderdi Popularraren Espainiako Gobernuak Kontzebituaren Biziaren eta Emakume Haurdunaren Eskubideen Babeserako Lege Organikoaren aurreproiektua onetsi zuen, Ministroen Kontseiluan. Horren arabera, indargabetuta geldituko da 2010az geroztik indarrean egondako legea, zeinean herrialde honetako emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak bermatzen baitziren, sexu-osasunaren sustapenaren eta nahi gabeko haurdunaldien prebentzioaren garrantzia luze-zabalean jasotzeaz gain. Testu berria onesten denean, emakumeen ugalketa-eskubideen atzerakadarik handiena izanen da, eta emakumeen askatasunari zuzeneko erasoaren eraginaren ondorioz.

Espainiako Gobernuak proposatutako testuak epean legea desagertzea dakar; horren ordez, legeak bi aukera soilik onartuko ditu, eta, aldi berean, oztopo mediko eta burokratiko andana egonen da, ia ezinezkoa eginen duena emakume batek haurdunaldia borondatez eten ahal izatea. Proposamen berriaren arabera, beste pertsona batzuek erabakiko dute emakumearen ordez.

Espainiako gizarteak ez du nahi PPK proposatutako lege hau. Ez du ulertzen atzerantzko aldaketa hau, gehiengo handi batek errefusatu duena. Gizarte-errefusa horren fruitu, Espainiako historiako mobilizazio feminista handienetako bat egin zen iragan otsailaren 1ean. Mobilizazioa Espainiaren iparraldeko bi emakume-elkarte txikiren ekimena izan zen: "Askatasunaren trenean" Madrilerantz abiatu ziren, beren eskubideak errebindikatzeko. Mobilizazioa handituz joan zen, eta Espainiako geografia osoko milaka gizon eta emakume batu zitzaizkion, baina baita Europako gainontzeko lekuetakoak ere, zentzugabekeria hau gerazteko asmoz.

Europako gizarteak ez ditu albo batera utzi hain gertakari larriak, eta sarri askotan erakutsi du emakume espainiarrekiko bere elkartasuna, horien borrokarekin bat eginez eta sexu- eta ugalketa-eskubideak errebindikatuz. Hedabideek ere oihartzuna eman diote albisteari, ezohiko jarraipena izan baitu. Oraingo honetan, Espainia bere atzerakadengatik da albiste munduan.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Europako Parlamentua premiatzen du otsailaren 1a Emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideen Europako Egundeklaradezan, emakumeen askatasunaren alde eta PPren abortuaren legearen aurreproiektuaren aurka Madrilen egindako mobilizazio handiaren gomutan.

- Nafarroako Parlamentuak Europako Parlamentua premiatzen du Europar Batasuneko estatu kide guztietan aukera berdintasunaren printzipioa eta gizarte justizia bermaturik egon daitezen, bai eta informazio inpartziala, neska-mutikoen sexu-hezkuntza, mediku-laguntza –abortua barne–, azpiegitura medikoak, prebentzio eta kontrazepzio metodoen sustapena, emakumeentzako preserbatiboak, emergentziazko kontrazepzioa eta aholkuesna eskuragarri edukitzea ere.

Mozio hau onetsiz gero, Europako Parlamentuari jakinarazi beharko zaio.

Iruñean, 2014ko ekainaren 19an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen baitu Kairoko programa berrets dezan Nazio Batuen biltzar nagusiaren hurrengo bilkura berezian.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Kairoko programa berrets dezan Nazio Batuen Biltzar Nagusiaren hurrengo bilkura berezian, zeina 2014ko irailean eginen baita.

Orobat eskatzen dugu herritar guztien osasuna eta sexu- eta ugalketa-eskubideak berdintasun

baldintzetan bermatu, sustatu eta babestuko duten politika publikoak gara eta aplikatu daitezten.

Halaber, Espainiaren lankidetzak politikak osasuna eta sexu- eta ugalketa-eskubideak sustatzea babesten dugu, zuzenean nahiz gobernuarteko beste erakunde batzuen eta gizarte zibileko erakunde bidez egiten dituen programa eta proiektuen bitartez.”

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gurutze Gorria eta haren Nafarroako ordezkariak zoriontzen baititu haien 150. urtemuga dela eta.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Espainiako Gurutze Gorria eta haren Nafarroako ordezkariak zoriontzen ditu haien 150. urtemuga dela-eta, eta bere lan altruistarekin jarraitzeko gonbit egiten dio.

2. Aldi honetan Nafarroan egindako landa aitortzen du, bereziki krisi ekonomikoko azken urte-

tan, zeinetan Gurutze Gorriak nabarmen areagotu baititu bere esku-hartzeak.

3. Gonbit egiten dio gizarteari Nafarroan dauden GKE ezberdinekiko konpromisoa, elkartasuneko eta humanitarioa, zertu dezan.

4. Adierazpen instituzional hau Espainiako Gurutze Gorriari eta Nafarroako Gurutze Gorriari helaraziko die.”

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Armeniako herriaren aurkako genozidioaren urteurrena hartzen baitu gomutan, eta garai hartan zegoen Turkiako erregimenak zerabilen politika salatzen baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Atsekabez hartzen du gomutan Armeniako herriaren aurkako genozidioaren urteurrena, garai hartan zegoen Turkiako erregimenak egindakoa eta bi milioi pertsona baino gehiagoren erailketan gauzatu zena.

2. Uste du, bat etorri Europako Parlamentuaren 1987ko ekaineko ebazpenarekin, zeina geroko beste ebazpen batzuek berretsi baitzuten (2002ko otsailaren 28koa eta eta 2004ko apirilaren 1ekoak), armeniarrek orduan pairatutako gertakariak benetako genozidio bat izan zirela, 1948ko abenduko Nazio Batuen Konbentzioaren, Genozidio-krimena prebenitzeko eta zigortzekoaren araber.

3. Europako Parlamentuak bezala uste du Europar Batasunean sartzekotan den herrialde batek bere iraganari aurre egin behar diola eta bere iragana errekonozitu behar duela, eta Turkiari eskatzen dio auzotasun-harreman diplomatiko onak eta harmoniatsuak ezar ditzan Armeniarekin, eta modu baketsuan konpon ditzan bere mugakontuekin zerikusia duten gatazkak.

4. Bere begikotasuna adierazten dio Armeniako herriari, eta babestu egiten ditu hura bere prozesu demokratikoa sendotze aldera eta Kaukason lankidetzaren eta askatasun-esparru egonkor bat finkatze aldera egiten ari den ahaleginak.

5. Espainiako Gobernuari eskatzen dio adierazpen hau Kanpo Arazoetarako Ministerioaren bidez helaraz diezaien Armeniako eta Turkiako erakunde eskudunei”.

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Felipe VI.a Erregea zoriontzen baitu, Espainiako Errege aldarrikatua izan ondoren.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Felipe VI.a Erregea zoriontzen du, Espainiako Errege aldarrikatua izan ondoren, eta orobat zoriontzen du Letizia Erregina.

2. Bere maiestateari opa dio erregetzak Espainiaren nahiz bere herritarren bakea eta aurrerabidea lortzea, eta aurrerapausoak ematea estatu demokratiko batean, askatasun eta parte-hartze sozialeko esparru berriak sortuz.

3. Bere leialtasuna eskaintzen dio Koroari Nafarroako Gorteetatik, Foru Komunitateko herritarren ordezkari zilegiak diren aldetik.

4. Bere errespetua, esker ona eta aintzatespena adierazten dizkio on Juan Carlosen figurari, bere erregealdian Espainian demokrazia bultzatu eta bermatzeagatik, eta beste horrenbeste egiten du Sofia Erreginak izandako eginkizunari dagokionez”.

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesten baitu 2014an ospatzea lesbianen, gayen, transexualen eta bisexualen (LGTB) giza eskubideen aitortpenerako urtea.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“• Nafarroako Parlamentuak babesten du 2014an ospatzea Lesbianen, gayen, transexualen eta bisexualen (LGTB) giza eskubideen aitortpenerako urtea, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du lesbianen, gayen, transexualen eta bisexualen elkarteek egindako lanetan eta jardueretan lagundu dezan.

• Nafarroako Parlamentuak adierazten du erabat gaitzesten duela lesbianak, gayak, transexualak eta bisexualak kriminalizatzen dituen legedi oro eta LGTBen giza eskubideen defendatzaileak jazartzen dituztenak, mundu osokoak.

• Espainiako Gobernua premiatzen dugu egoki diren zuzemen diplomatikoak egin ditzan, Europako Batzordeari eta gure bazkide europarrei eskatze aldera LGTBen aurkako legediak eta LGTBen

giza eskubideen defendatzaileak, mundu osokoak, jazartzen dituztenak irmo gaitzets ditzaten.

• Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioa premiatzen dugu Espainiako Gobernuak legedi horiek gaitzesten eta errefusatzen dituela adieraz dezan, eta berehala erretira daitezzen eska dezan.

• Espainiako Gobernua premiatzen dugu protokolo bat ezar dezan, gure ordezkari-tza diplomatikoetan arreta berezia bermatuko duena asilo edo aterpe eskari edo prozeduretan, horiek aurkeztu dituzten pertsonak datozenean beren sexu-orientazioagatik nahiz -identitateagatik edo/eta lesbianen, gayen, transexualen eta bisexualen giza eskubideak defenditzeagatik pertsonak jazartzen diren herrialdeetatik”

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako sinbolo nazionalak bere konpromisoa berresten baitu.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Espainiako sinbolo nazionalak bere konpromisoa berresten du; zehazki, bere banderarekin, Konstituzioak ezartzen duen moduan.

2. Nafarroako sinbolo ofizialekiko bere konpromisoa berresten du orobat; zehazki, bandera, armari eta ereserkiarekikoa, Foru Komunitatearen identitatearen adierazpide gorena islatzen duten osagai instituzionalak diren aldetik.

3. Sinbolo horien zilegitasuna aitortzen du, Konstituzioaren eta Foruaren Hobekuntzaren babesa ere badutenak.

4. Adierazten du gizarte osoaren herritar-betebeharra dela –bereziki, Legebiltzarrean ordezkari-tza duten alderdi politikoena– Espainiako nahiz Nafarroako sinbolo ofizialak ezagutzea eta errespetatzea.

5. Defendatzen du erakundeek araudi indardunari jarraituz erabil ditzaten Nafarroako sinbolo ofizialak”

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezko aldaketak egin ditzan indarrean dagoen Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratuan eta exiji diezaien Sakanako Mankomunitateari eta bertan integratuta dauden eta atez ateko sistema inposatu nahi duten udalei sistema horren ezarpena geldiarazteko.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen beharrezko aldaketak egin zitzaizkion indarrean dagoen Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratuan eta exiji ziezaien Sakanako Mankomunitateari eta bertan integratuta dauden eta atez ateko sistema inposatu nahi duten udalei sistema horren ezarpena geldiarazteko, eta 2013ko ekainaren 17ko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, kronikoen estrategiarako bi milioi euro zer kontzeptutan gastatuko diren jakitekoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, kronikoen estrategiarako bi milioi euro zer kontzeptutan gastatuko diren jakitekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Osasun Batzordeak gaur, ekainak 17, egindako lan bileran, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarrizko Laguntzako zuzendari Yurs jaunak esan du bi milioi euro gastatuko direla aurrean, 2014an, kronikoen estrategiarako.

– Zer kontzeptutan gastatuko da diru hori? (Kontzeptu bakoitzaren xehetasunak eta zenbatekoa jaso nahi ditut).

Iruñean, 2014ko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Nafarroako Gobernuak arku atlantikoko trenbide-korridorea bultzatzeko proiektuan parte hartzeari buruzkoa.

ELOY VILLANUEVA CRUZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak arku atlantikoko trenbide-korridorea bultzatzeko proiektuan parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak arku atlantikoko trenbide-korridorea bultzatzeko proiektuan parte hartzeari dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

– Nafarroako Gobernuko zer administrazio-unitatek parte hartzen duen Europako proiektu horretan.

– Proiektu hori dela-eta egindako jarduketak.

– Nafarroako Gobernuaren ordezkartzean gertatu ahal izan diren aldaketak.

– Zer txosten eta ziotan oinarritzen den, kasu bada, Europako proiektuko ordezkartzearen aldaketa.

Iruñean, 2014ko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Eloy Villanueva Cruz

Galdera, ikastetxe publikoetan egiten diren larrialdietako ebakuazio-simulakroei buruzkoa.*PATXI LEUZA GARCÍA JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Leuza García jaunak aurkeztutako galdera, ikastetxe publikoetan egiten diren larrialdietako ebakuazio-simulakroei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Ikastetxeetako segurtasunari dagokionez eta, zehazki, Lehendakaritza, Justizia eta Barne

Departamentuak bere eskumenen esparruan Hezkuntza Departamentuarekin lankidetzan ikastetxe publikoetan egiten dituen larrialdietako ebakuazio-simulakroei dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

• Ikastetxe publikoetan egiten diren larrialdietako ebakuazio-simulakroak ikastetxeetako ez diren langileen aurrean egiten al dira?

• Zer jarduketa-protokolo dago ikastetxe publikoetan egiten diren larrialdietako ebakuazio-simulakro horietan detektatutako akatsei dagokionez?

• Noren ardura da ebakuazio-simulakro horiei buruzko txostenak jasotzea eta horien jarraipena egitea?

• Ebakuazio-simulakro horiek egitean ikastetxeetako instalazioetan akatsak edo/eta arazoak detektatzen direnean, zer komunikazio-, jakinarazte- eta konponketa-protokolo jarraitzen da, baldin eta horien konponketa eta mantentze-lana kasuko udalaren ardura bada?

• Detektatutako arazoak edo/eta akatsak zuzendu eta konpondu ote diren egiaztatzen al da? Nola?

Iruñean, 2014ko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Patxi Leuza García

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean “Aquiles” hidrokarburoen gaineko ikerketa-proiektuaren sismologia-azterlana hasteari buruzkoa.

VÍCTOR RUBIO MARTÍNEZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Víctor Rubio Martínez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean “Aquiles” hidrokarburoen gaineko ikerketa-proiektuaren sismologia-azterlana hasteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínezek, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuako organo eskudunari, idatziz erantzun diezaion:

Aragoiko zenbait hedabidetako iturrien arabera, Frontera Energy Corporation enpresak hasia du jada Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean “Aquiles” hidrokarburoen gaineko ikerketa-proiektuko sismologia-azterlana, fracking izeneko teknika-ren bidez hidrokarburoak ustiatze aldera.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

• Nafarroako Gobernuak ba al du azterlan hori hasi izanaren berri?

• Baiezkoan, Nafarroako Gobernuak zer-nolako informazioa darabil prospekzio horiei buruz? Zertan da prospekzio horiek egiteko administrazio-prozesua?

Iruñean, 2014ko ekainaren 19an

Foru parlamentaria: Víctor Rubio Martínez

I saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Nafarroako 2014-2020 Osasun Plana.

ERABAKI PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeko lehendakariak, 2014ko ekainaren 19an egindako bileran, erabaki zuen Nafarroako 2014-2020 Osasun Planari erabaki proposamenak aurkezteko epea **2014ko irailaren 10eko eguerdiko hamabietan** bukatuko dela. Plan hori 2014ko ekainaren 17ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera
